



***Cristina de Miguel: El caer y el viento***

**13.04.2023 - 04.06.2023**

**Itsasargi Pasealekua 33, 20008, Donostia-San Sebastian, Gipuzkoa, Euskadi, Espainia**



*Cristina de Miguel: El caer y el viento*

Apirilak 13 - Ekainak 4, 2023

## **Prensa oharra**

Apirilaren 13tik ekainaren 4ra bitartean, Villa Madgalenak atsegin handiz aurkezten du Cristina de Miguel: Erorialdia eta haizea.

Cristina de Miguel (Sevilla, 1987) New Yorken bizi den artista espainiarraren erakusketa izango du bisitagai Villa Magdalenak. Artistak ozeanoarekiko duen begirada berriak eta uretan dauden gorputzen ideiak eragindako bost obra egongo dira ikusgai. Sail berri honek, erakusketak hartuko duen izaerari erantzuten dio, Donostia: itsasoak irentsitako kostaldeko hiria. Erakusketa honetan, de Miguelek grabitatea, abiadura edo fisika bezalako gaien miaketa piktorikoa egiten jarraitzen du, gorputzaren zatiketak eta pinturaren materialtasunak definitutako ikuspegi figuratibo bat garatzen duen bitartean.

Cristina de Miguelen margolanak ezagunak dira kolore biziko paletekin distortsionatutako irudiak elkarren ondoan jartzearagatik. Bere jardueraren muinean pintura aplikazio desberdinen konbinazioa dago, hainbat ehunduratan eta pintzelkadetan sortzen dena. Bere koadroen mugimendu-sentsazio biziak berezko prozesu fisikoa eta kaotikoa gailendu du: mihisea, lurretik paretera, hau da inklinatuta eta laua jarriz du, artistak gainazalean pintura isuri, bota eta urratzen duen bitartean. De Miguelek olio-barra erabiltzeak eta gorputz-anatomia askeei eusten dieten lerro frenetikoen ugaritasunak marrazkiaren eragin handia duen sentsibiltate piktorikoa ekartzen dute gogora. Funtsean, bere koadroek kontrako indarren bidez hartzen dute bizia: testura heze eta lehorrak, gainazaleko tratamendu lodi eta finak, keinu figuratibo ilunak eta kolore argien bereizgarri dituzten konposizioak.

Giza irudiak eta aurpegiak dira nagusi Cristina de Miguelen obran. Azken urteotan, fikziozko izakien taldeak aurkeztu dizkigu ekintzak eginez: scooter-etan eta motorretan ibiltzen diren gizabanakoak, musika-tresnak jotzen, ibiltzen, oinez, hegan. Aurreko obretako eszena kolektibo horiek irudi eta ekintza ugariz betetako agertokiak dira, aldi berean elkarri eragiten diotenak. Orain, erakusketa honetako eskala handiko mihiseetan ikusten ditugunak narrazio-generotik aldendu diren irudiak dira, begirada ez-errepresentatibo baten mesedetan.

Ikusgai dauden pinturak fase introspektibo baten emaitzak dira. Fase horretan, artistak bere ikusizko hizkuntza alegiazko norabide bisual berri batean bideratzen duten ideiei buruz hausnartzen du, alegiazko norabide berri batean, eta, aldi berean erakusketarekin komunikatzen den elementu espezifiko bat dute. De Miguelen azken emaitza irudi bakarreko konposizioen inguruko mihiseak dira. Gorputza eta bere atalak izugarri handitu dira eskalaz eta formek beren ingurudak galdu eta ezagutzen ez denaren aldera urtzen hasten diren arte. Gertakari ugariko eszenen ordean, esku eta oin erraldoiak jarri dira, beren autonomiari eusten diotenak, pintura-planoaren eremu handiak okupatzen baitituzte. Itxura likidoz tindatutako hondo urdinek irudi hauek ainguratzen dituzte, itsasoa eta haren noizbehinkako mugimenduak gogora ekartzen dituzten keinu jarioak sortuz.

Aurpegiaren arteko tentsio erritmikoak, zehaztasunez egindako adierazpen desberdinekin, eta egitura-osotasunik ez duten soin desegituratuekin, artistak gorputzaz pieza gisa duen ideia gorputzen du.

Asteartetik igandera, alde zurretik hitzordua eskatuta.



*Cristina de Miguel: El caer y el viento*

April 13 – June 04, 2023



Cristina de Miguel  
*En Cielo de Oceano*  
2022  
Akrilikoa eta olio-barra mihise  
gainean  
244 x 213 cm  
(96 x 84 inches)



Cristina de Miguel  
*Tornado-Mar*  
2022  
Akrilikoa eta olio-barra mihise  
gainean  
244 x 213 cm  
(96 x 84 inches)



Cristina de Miguel  
*Dos Figuras al Viento*  
2022  
Akrilikoa eta olio-barra mihise  
gainean  
244 x 213 cm  
(96 x 84 inches)



Cristina de Miguel  
*Profundo de Noche*  
2022  
Akriliko eta olio-barra mihise  
gainean  
183 x 152 cm  
(72 x 60 inches)



Cristina de Miguel  
*Flying High*  
2022  
Akriliko eta olio-barra mihise  
gainean  
213 x 244 cm  
(84 x 96 inches)





Instalazioaren ikuspegia. *Cristina de Miguel: El caer y el viento*. Villa Magdalena, Donostia. Idoia Unzurrunzagaren argazkia.



Instalazioaren ikuspegia. *Cristina de Miguel: El caer y el viento*. Villa Magdalena, Donostia. Idoia Unzurrunzagaren argazkia.





Instalazioaren ikuspegia. *Cristina de Miguel: El caer y el viento*. Villa Magdalena, Donostia. Idoia Unzurrunzagaren argazkia.





Instalazioaren ikuspegia. *Cristina de Miguel: El caer y el viento*. Villa Magdalena, Donostia. Idoia Unzurrunzagaren argazkia.





Instalazioaren ikuspegia. *Cristina de Miguel: El caer y el viento*. Villa Magdalena, Donostia. Idoia Unzurrunzagaren argazkia.





Instalazioaren ikuspegia. *Cristina de Miguel: El caer y el viento*. Villa Magdalena, Donostia. Idoia Unzurrunzagaren argazkia.